



IKASLE EREDUA

GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA ESTALDURA

Ibilgailuen mantentze lanen kudeaketa eta logistika

Iraupena: 30

Taldeak: 4 ikasleko taldeak

TAILERREKO MANTENUA ETA FUNTZIONAMEDU GIDA

Hasiera data: 2024-09-10

**Antolaketa: ERRONKA
INTERMODULARRA**

Erronka

Erronka definitu:

Pintura tailer bat erosi dugu. Tailer honetan karrozeria pintura lanak egitea da asmoa eta martxan jartzeko hainbat ekintza aurrera eraman beharko dira. Hasteko, tailerraren gune eta ekipamendu ezberdinen azterketa egingo da, ondoren funtzionamendu egoki baterako beharrezko mantenua diseinatu, segurtasun ekipamendu eta sistemak ezarri eta hondakinen kalitatezko kudeaketa definituz. Bukatzeko, tailerrean lan egiteko funtzionamendu gida sortu beharko da.

Helburuak/ Ikaskuntza emaitzak

- 1. Ibilgailuak, ekipoak eta tresnak mantendu eta konpontzeko lanekin lotutako informazioa eta, oro har, hizkuntza sinboliko guztia interpretatzea, konponketarako aurrediagnostikoa lortzeko.**
- 12. Laneko segurtasunari eta ingurumenari buruz indarrean dagoen araudia ezarritako dokumentazioaren arabera interpretatzea, hura betetzen den ikuskatzeko.**

Mod.8/AUGT/0295 GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA ESTALDURA

IE8.6 Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, eta, horretarako, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak baloratu ditu.

Mod.9/AUKL/0297 IBILGAILUEN MANTENTZE LANEN KUDEAKETA ETA LOGISTIKA

IE9.1 Ibilgailuak mantentzeko planak egiten ditu, eta, horretarako, esku hartzen duten aldagaiak aztertzen ditu, eta metodoak eta denborak kontuan hartzen ditu.

IE9.2 Lana banatzeko planak prestatzen ditu, eta, horretarako, lan-kargak instalazioen eta ekipoen eraginkortasunarekin lotzen ditu.

IE9.5 Ibilgailuak mantendu eta konpontzeko eragiketek sorrarazitako hondakinen tratamendua kudeatzen du, eta, horretarako, agente kutsatzaileak identifikatu eta horiek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak deskribatzen ditu.

Egin beharreko lanak

Ondorengo elementuak bilduko dituen TAILERREKO PLANO bat: (I.E. 9.1) %40, (I.E. 9.5) %20, (I.E. 8.6)

- Gune ezberdinak(errealak) eta bere dimentsioak
- Suteen aurkako sistema
- Larrialdietarako ebakuatze plana
- Hondakinen kudeaketarako gunea
- Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak

Lantegiaren azaleraren araberako lanpostu kopurua eta lan kargak kalkulatu beharko dira. (I.E. 9.1) %60

- Lantegiak beharrezkoak izango dituen beste guneak kalkulatu eta plano errealean kokatu (Harreragunea, aldagelak, itxaron-gela, ordezkagaien biltegia,...)
- Dugun lantegia izanda (azalera errealak), **lanpostu** eta **langile kopuruak** kalkulatu (biderkatzailea=2).
- Tailerra 8 ordu baino gehiago zabalik egongo dela eta *konponketaren batzbesteko denbora* $t_{mr}=8$ ordu dela kontuan hartuz, kalkulatu **egunean konponduko den ibilgailua kopurua.**

Pintura guneko mantenua egitea da beste helburuetariko bat. Horretarako pintura tailerreko gune ezberdinak, bertako ekipamendua eta bere ezaugarriak ezagutu eta identifikatu behako dituzte ikasleek. (I.E. 9.2) %50

- Pintura gunea aztertu, mantenua behar duten gune eta ekipamenduak identifikatuz.
- Egin beharreko mantenu ezberdinak deskribatu.
- Mantenua egiteko behar den materiala zerrendatu eta kostu totala adierazi (prezio eta fabrikatzaileen estekak adierazi)
- Mantenu plana egin. Egin beharreko ekintzak definitu, denboran kokatu eta arduradunak adierazi.

Tailerrean sortuko diren **hondakinen kudeaketa** definitu. (I.E. 9.5) %80, (I.E.8.6)

- Jarraitu beharreko araudia adierazi.
- Hondakin mota ezberdinak adierazi eta berauen kudeaketa azaldu (biltegitratzea, ontzi motak etabar)
- Deskribatu kudeatzaile baimenduekin lan egiteko prozesua. (Ingurumenaren kudeaketa)

Arriskuen prebentzioa, norberaren segurtasun eta ingurumen-babeserako neurriak deskribatu. (I.E.8.6)

- Suteen aurkako sistema
- Larrialdietarako ebakuatze plana
- Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta

ingurumen-babeserako neurriak

Tailerreko funtzionamendu gida bat sortu. Urtean zehar tailerrean nola lan egin behar duzuen zehaztuko duzue, idatzizko gida bat sortuz. Gune bakoitza txukun eta funtzionamenduan egoteko jarraibideak defitzea da helburua. (I.E. 9.2) %50

- Zereginak zerrendatu, sailkatu (banaka egitekoak, taldean, ikastordu hasieran, ikastordu amaieran,...)
- Arazoak aztertu, DUALA, ikaskide batek hutsegitea, egun eta ordu egokia,..
- Lanen deskribapen laburra eta denen eskura egon beharreko informazioaren bistaratzea.

Egindako lanen laburpena aurkeztu beharko da erronka amaieran. Honen ostean, aurkezturiko funtzionamendu gida egokiena aukeratuko duzue tailerrean erabiltzeko.

Ebaluazio irizpideak

AUGT

Erronka honetan gaitasun teknikoak aldetik IE 8.6 ebaluatuko da.

AUKL

Erronka honetan landuriko gaitasun teknikoak: IE 9.1, IE 9.2, IE 9.5

Zeharkako gaitasunak:

- Lan taldea
- Ahozko eta ez-ahozko komunikazio trebetasuna
- Autonomia

<i>Taula honetako %ak Tknikak proposaturikoak dira. Erronkaren arabera aldatu daitezkeenak.</i>				Irakasleak	Ikasleak bere buruari	Ikasleak ikaskideei	Kanpo ebaluazioa
				%	%	%	*
Gaitasun teknikoak	60%			100%			
Zeharkako gaitasunak	40%	Lan jarrera	30%	70%	10%	20%	
		Autonomia					
		Komunikazioa					
		Lan taldea	10%				

Baliabideak

Erronka hau burutzeko ETHAZI gela bat internetera konexioarekin eta pintura tailerrean dauden instalazio eta ekipamenduak izango dira ikaslearen esku.

Denbora antolaketa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00		AUGT		AUGT	
9:00 – 10:00		AUGT		AUGT	
10:00 –11:00		AUGT	AUKL	AUGT	
ATSEDEN.					
11:30 –12:30		AUGT			AUKL
12:30– 13:30		AUGT			AUKL
13:30 –14:30					

1.TALDEA	ILLART MARKEL ANTXON LOREA
2.TALDEA	AROA JORGE NIMROD UNAI ARIZ
3.TALDEA	LIHER RECUERO IRATI
4.TALDEA	ASIER UNAI DANEL
5.TALDEA	HERAITZ CASTRO ANDONI RAUL